

Transexualitatea eta haurtzaroa: begirada aldatuz

Aingeru Mayor

“Transfeminismo o barbarie” (Kaótica Libros, 2020)

liburuaren kapitulua,
Marije Manterolak itzulita



Azken hamarkadan, historikotzat har dezakegun aurrerapen bat gertatu da transexualitatearen ikusgarritasunari, ulermenari eta onarpenari dagokienez; eta bereziki, haurtzaroko transexualitateari dagokionez.

Zoritxarrez, bidea irekitzen ari den errealitate berri honen aurrean, ideologia eta esparru teoriko oso desberdinetatik, haur horiei, emakume eta gizon horiei, direnak izateko aukera, haien existentzia eta haien eskubideak ere ukatzen dituzten eta sufritzera kondenatzen dituzten diskurtsoak entzuten ari gara: bai eskuinetik eta baita ezker batzuetatik ere, leihorik gabeko autobus laranjetan eta feministatzat aldarrikatzen diren pulpituetan, jarrera kontserbadoreetatik, baina baita jarrera progre, moderno eta postmodernoetatik ere. Izugarria da, batzuetan, ukapen hori egiten dutenak errealitate hau ezagutzen ez duten eta, are gehiago, batere enpatiarik ez duten hainbat diziplinatako profesionalak eta adituak izatea.

Ezjakintasuna, beldurra edo gorrotoa oinarri hartuta hitz egiten dutenei aurre egiteko modu asko egon daitezke. Modu horietako bat, agian deigarriena ez, baina ez horregatik balio gutxiagokoa, errealitate hori aztertzea eta ezagutza zehaztasunez sortzea da. Ez soilik ulertzeko, baita laguntzeko ere neska-mutil horiek, emakume eta gizon horiek, gure gizartean leku bat, beren lekua, izan dezaten eta beren bizitzak modu duinean bizi ditzaten.

Duela oso urte gutxira arte, haurren transexualitatea, hau da, zakila zuten neskatoen eta bulba zuten mutikoen existentzia ikusezina izateaz gain, pentsaezina ere bazen. Ez zen horretaz hitz egiten, pentsatzeko gaitasunik ere ez zegoelako. Horregatik, inork ez zuen entzuten haur horiek adierazten zutena. Are gehiago, isilarazi egiten zituzten, zuzendu, zigortu. Eta, noski, sufritzen zuten. Zirena ezin izanez hazten ziren, derrigorrez ezarri zitzairen moztaraz sartuta. Haurtzaroa igaro ondoren, ez zirenaren itxurak egiten jarraitu ezin izan zutenek, bazterkeria eta marjinazioa jasan zituzten: oso gazteak zirela, etxetik bota zituzten, lana aurkitzeko zailtasun handiak izan zituzten, kasu batzuetan iraindu eta eraso egin zieten; hil ere egin zituzten. Gehiegitan sufrimendua hainbestekoa izan zen, non beren buruaz beste egitea bihurtzen baitzen bere ihesbide bakarra.

Duela urte gutxi batzuk trantsitua egin duen neskato baten amak kontatzen duenez, bere alabak adierazten zuena ulertu ezinik, gainezka egiten zion egoera haren aurrean, emakume transexual heldu bat aurkitu arte bilaka ibili zen, honako hau galdetu ahal izateko: "Zuk noiztik dakizu? Nolakoa izan zen zure haurtzaroa?". Emakume hark erantzun zion betidanik zekiela, txiki-txikia zenetik; kontatu zion zein zaila izan zen ezkutuan eta isil-gordeka haztea, barruan zer sentitzen zuen adierazi ezinik; ezin izan zuela benetan bera zena izan, heldua izan zen arte, esan zion. Ama hura izutu egin zen alabari gauza bera gertatu behar zitzaiola pentsatzearekin, haurtzaro dohakabea bizi

beharko zuela, ezkutuan; bere bizitzako urterik onenak eta garrantzitsuenak lapurtzea bezala izango zelako, erabaki zuen ezin zuela hura bere alabarentzat onartu.

Zorionez, gaur egun haurrak direnentzat, errealitate hau pentsa dezakegu, ulertu, eta, beraz, baita lagundu ere. Izan ere, dagoeneko, euren sexu-identitatea errespetatua eta onartua duten haur transexualen lehenengo belaunaldia ezagutzen ari gara. Eta ikusten ari gara haur horiek irribarre egiten dutela, jolasten direla, harremanak dituztela, ikasten dutela, dantza egiten dutela...

Aldaketa historiko horren eragile nagusia, zalantzarik gabe, familien elkarteen sorrera izan da: duela 7 urte familia gutxi batzuen ekimena izan zena modu esponenzialean hazi da eta, gaur egun, bi mila familia inguru biltzen dituzte familien elkarteek Estatu osoan. Egiten duten lana izugarria da: familiei laguntzen diete, erakundeekin lan egiten dute administrazio eta lege-aldaketak lortzeko, komunikabideen bidez ezagutza zabaltzen dute, baliabide didaktikoak sortzen dituzte... Familien mugimendu hau iraultzailea izan da; onarpenak eta maitasunak gidatutako iraultza. Bere indarra izugarria da eta horren arrazoiak, Ares Piñeiro gizon transexual eta aktibistaren hitzetan, hauek dira: "Lehen, gizonak eta emakumeak ginen gure eskubideen alde borrokatzen. Orain gurasoak dira beren seme-alabengatik borrokan. Eta hori, hori ez dago geldiaraziko duenik".

Gaur egun, sexu-identitatea espero zenarekin bat ez datorrenean eta trantsittoa onartzen eta egiten denean gertatzen denari buruzko ezagutza oraindik ez dago *akademian*. Oso literatura zientifiko gutxi dugu haurren transexualitatearen alderdi anitzak zehaztasunez jorratzen dituenak. Are gehiago, kasu gehienetan aurreiritziak eta planteamendu okerrak aurkitzen ditugu, faltsukeriak ere bai¹; ia beti transexualitatea nahasmendu gisa, patologia gisa aurkezten da. Planteamendu horiek ez dute sexu-identitateaz hitz egiten, genero-disforiaz baizik; ez dira aniztasun-gertaerak ulertzen eta laguntzen saiatzen, baizik eta orain *genero-inkongruentzia* deitzen dutena diagnostikatzen eta tratatzen saiatzen dira.

Zorionez, transexualitatearen errealitatea ulertzeko asmoa duten zehaztasun handiko ikerketa zientifikoetatik abiatutako zenbait argitalpen aurkitu ahal ditugu dagoeneko. Horren adibide da Kristina Olson²en ikerketa, Ameriketako Estatu Batuetan eta Kanadan, trantsittoa egin duten 3 eta 12 urte bitarteko 73 haurren esperientzia biltzen duena. Azterlan horrek erakusten du haien bizikalitatearen adierazleak batez bestekoaren antzekoak direla, eta trantsittoa egin ez duten adingabe transexualekin egindako beste azterlan batzuetan jasotakoak baino askoz hobekak direla.

Bide horri jarraituz, Euskal Herriko Unibertsitatean ikerketa bat egin dugu trantsittoa egin duten 3 eta 18 urte bitarteko adingabekoekin³, eta bertan kuantifikatu ahal izan dugu trantsittoa egin aurretik eta ondoren dagoen hobekuntza. Emaitzek erakusten dute trantsittoaren prozesua burutzeak ondorio psikosozial oso positiboak dituela: eragin positiboa du bai osasun mentalean, bai familia eta gizarte-harremanetan; murriztu egiten dira bai depresio eta antsietate-sintomak, baita uzkurtasuna ere; hobetu egiten da haien autoestimua, beren baitan duten segurtasuna eta beren gorputzaren onarpena; bereziki garrantzitsua da beren burua zauritzen edo beren buruaz beste egiten saiatzen direnen kopuruaren murriztea.

1 "Transexualidad en la infancia: desenmascarando la falsedad del 80% de «desistimientos»". A. Mayor. 2017

2 "Mental Health of Transgender Children Who Are Supported in Their Identities". 2016. K R. Olson, L. Durwood, M. DeMeules and K. A. McLaughlin. Pediatrics.

3 "La importancia del tránsito en el desarrollo psicosocial de menores transexuales. Mirada y visión desde la propia vivencia, la familia y la escuela". A. Martxueta, A. Mayor, E. Cepa, J. Etxeberria y J. Pizarro. 2020. UPV-EHU. Ikerketa honetan estatu osoko 229 gurasok, 49 tutorek eta 57 nerabek parte hartu dute.

Etxe horietan zer gertatzen den sakon jakin nahi badugu, ikerketa kuantitatiboek ematen dizkiguten zenbakizko datuez harago, beharrezkoa izango da familia horiek zer kontatzen duten entzutea, haien testigantzak biltzea eta aztertzea. Horixe egin dugu proiektu batean, eta horren emaitza da "Tránsitos"⁴ liburua. Bertan, trantsittoa egin duten haur eta gazteen gurasoek idatzitako hogeitabost kontakizun jaso dira, non zehatz-mehatz kontatzen duten beraien prozesu biografiko guztia, jaiotzatik gaur egunera arte.

Hurrengo lerroetan, transexualitate-egoeran dauden adingabeen familiek emandako testigantzen analisitik atera daitezkeen gai garrantzitsu batzuk garatuko ditugu, errealitate honen ezagutza egituratua eraikitzen hasteko aukera ematen dutenak.

Haur batzuk oso txikitatik, baita hiru urte bete baino lehen ere, beren sexu-identitatea jaiotzean iragarri zena ez dela adierazten duten arrastoak ematen hasten dira. Lehen zantzu horiek beren portaera, gustu eta moduekin lotuta egon ohi dira (janzteko eta orrazteko orduan, jolasak, jostailuak, mozorroak aukeratzeko orduan, pertsonaiekin identifikatzeko orduan, etab.). Baina zantzu horiek, berez, ez dakarte berekin ustezko transexualitaterik. Sexuari dagokionez gure ustea okerra izan zela adierazten duen adierazle argi bakarra da haurrak hala esatea; lehenago edo geroago, argitasun handiagoz edo txikiagoz, bere sexu-identitatea hitzaren bidez adieraztea, lehen pertsona singularrean: "Ni naiz".

Mutila izateak edo neska izateak zerikusia du bakoitzak bere buruaz duen autopertzepzioarekin. Ez da hainbeste sentitzeari lotutako kontua ("mutil sentitzen naiz", "neska sentitzen naiz"), baizik eta jakiteari lotutakoa ("mutila naizela dakit", "neska naizela dakit"). Autopertzepzio horren gainean, eta besteen begiradarekin eta testuinguru sozialarekin elkarriketan, sexu-identitatea eraikitzen da (hau da, ni naizen mutila edo ni naizen neska izateko modu berezia). Sexu-identitateak prozesu kognitiboekin du zerikusia, eta, jakina, ez dago genitaletan kokatua; garrantzitsua da bereizten joatea, gauza bat baita nik daukadana eta beste bat ni naizena.

Neska edo mutil izatea ez da borondate-kontua: ez da aukeratzen edo erabakitzen. Ez da "nik izan nahi dudana", baizik eta "ni naizena". Nolanahi ere, haur horiek nahi dutena da besteek ikus ditzaten, benetan diren neska edo mutil gisa ikus ditzaten. Ez da "neska izan nahi dut", baizik eta "besteek ni neska naizela ikustea eta onartzea nahi dut".

Hezkuntzak eta hazkuntzak, zalantzarik gabe, eragina dute neska edo mutil izateko norberaren modu berezian; genero-inposaketek baldintzatu egiten gaituzte eta modu basatian eragiten gaituzte, gainera. Baina norbait ez da neska edo mutil hala izan dadin hezi izan dutelako. Hori argi eta garbi egiaztatu ahal izan dute haur eta gazte transexualen familiek; izan ere, beren etxeetan, uste zuten sexuaren arabera, hazi eta hezi zituzten, eta uste zuten neska edo mutil bezala eraiki zituzten; baina haurraren barrutik datorren mutil edo neska dela jakitearen indar harrigarriak inposaketa horiek guztiak gainditzen ditu, erakutsiz du gizarte-eraikuntza ez dela norbait neska edo mutila izatearen arrazoia. John Moneyk, berak nahi izan zuenaren aurka, justuki, Bruce/Brenda/David Reimer-ekin⁵ egin zuen esperimentu tragikoarekin duela urte asko frogatua geratu zen hori.

Familia horien testigantza guztietan ikusten da sexu-identitatea ez onartzeak ondoeza sortzen duela neska eta mutil horiengan; askotan, oso sakona den ondoeza. Tristezian, antsietatean, depresioan,

4 "Tránsitos. Comprender la transexualidad infantil y juvenil a través de los relatos de madres y padres". A. Mayor. Ed. Bellaterra. 2020.

5 "David Reimer: el Tiresias contemporáneo". Joserra Landa. 2020.

zoritarrean, larritasunean adierazten den sufrimendua. Bideabar, ohikoa da hiltzeko nahia; ideia, plan edo portaera suizidak ere izaten dira.

Hain zuzen ere, ondoez hori arintzeko nahia izaten da gurasoak onarpenerako urrats txikiak egiten hasteko arrazoia (arroparekin, orrazkerarekin, mozorroekin, jostailuekin...). Etxean eta une jakin batzuetan soilik eman ohi diren lehen aukera horien aurrean, neska-mutil hauek poza adierazten dute. Hori bai, aukera horiek berehala gelditzen zaizkie txiki: denbora guztian eta bizitzako arlo guztietan izatea eskatzen dute.

Gainera, jolasteko edo nahi duten moduan janzteko aukera ematen bazaie ere, hori ez zaie nahikoa. Zerbait gehiago behar izaten dute: norbera den neska edo mutil bezala kanpotik ikustea eta aitortzea. Ikusiak izateko beharra. Munduaren aurrean benetan direnak izateko beharra dute. Izateko beharra.

Beren sexuaren arabera bizitzen hasten diren prozesuari trantsittoa esaten zaio, eta berekin dakar: beren sexuaren araberako genero gramatikala erabiltzea; kasu gehienetan, baina ez beti, izen berri bat aukeratzea; *look* aldaketa (arropa, osagarriak, ile-mozketa); sexuaren arabera bereizitako instalazioetan (komunak, aldagelak) beren sexuari dagozkionak erabili ahal izatea. Garrantzitsua da ohartzea trantsittoa ez dela neska horrek edo mutil horrek egiten duen zerbait, baizik eta, batez ere, besteek egiten duten zerbait dela; eta trantsittoa hori, batez ere, begiradan egiten da, besteek duten pertzepzioan. Egia esan, ez da *begiratu* aldatzen, *begirada* baizik. Lehen, mutil bat ikusten zen lekuan, orain neska bat ikustea; lehen neska bat ikusten zen lekuan, mutil bat ikustea orain, lehen ikusten ez zen mutil hori ikustea.

Jasotako testigantza guztiek azpimarratzen dute trantsittoa hobekuntza handia eragiten duela: negar egiteari eta triste egoteari uzten diote; amaitu egiten dira guduak, kasketaldiak, haserreak, antsietatea, agresibitatea, oinazeak... Eta sufrimendua eta ondoeza desagertzeaz gain, ongizatea, poza eta itxaropena azaleratzen dira; baita zoriontasuna ere.

Batzuek, zer esaten ari diren jakin gabe, baieztatzen dute gurasoak direla bultzatzen eta animatzen dituztela haien seme-alabak trantsittoa egitera. Baina testigantzek argi eta garbi erakusten dute haur horiek lehen zantzuak adierazten hasten direnetik gurasoak zerbait ulertzen hasten diren arte, denbora asko pasatzen dela eta, bitartean, gurasoek (ezjakintasunagatik, beldurragatik, segurtasun ezagatik edo hala aholkatzen dietelako) intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, beren seme-alabek adierazten duten sexu-identitatea ukatzen, erreprimitzen eta zuzentzen dute. Sistematikoki eta behin eta berriz, salbuespenik eta atsedunik gabe; kasu batzuetan, baita indarkeriaz ere.

Bestalde, kontakizun askotan honako prozesu hau errepikatzen da: beren sexu-identitatea adierazten dutenean ("mutila naiz" edo "neska naiz" esanez), zuzendu eta ukatu egiten zaie. Orduan, "ni naiz" argi eta garbi esateari uzten diote, eta "izan nahi dut" esaten hasten dira. Horrela, beren nortasuna besteen aurrean adierazteko gaitasuna galtzen dute.

Batzuetan, gurasoek sentitzen dute (eta kasu askotan gomendatzen zaie) hobe dela *itxarotea* eta *ezer ez egitea*. Ezer ez egitea, zerbait egitea dela konturatu gabe: atzeratzea, oztopatzea, eragozte... Eta itxarote-denbora igaro bitartean, areagotu egiten da seme-alaben sufrimendu-denbora. Gurasoek haien semeak edo alabak helduaroan (ustez) pairatuko duen sufrimenduari beldurrak adierazten ari den sexu-identitatea onartu nahi ez izatea (edo ezin izatea) eragiten du; hau da, etorkizuneko (ustezko) sufrimenduari beldurragatik, orainean (benetako) sufrimendua eragiten da.

Batzuek, intentzio onenarekin, neska eta mutil horien arazoa pertsona gisa tratatuz gero konponduko litzatekeela planteatzen dute, sexua existituko ez balitz bezala. Baina neska-mutil hauek ez dute hori nahi, eta ez dute hori behar. Inola ere ez dute pertsona izan nahi (pertsona gisako aitortpena dagoeneko badutelako); neska-mutil horiek norbera den mutil edo neska gisa aitortu eta onartu ditzagula nahi dute (hori baita ukatzen zaiena).

Edozein umeren hazkuntzan bidelagun izan nahi badugu, funtsezkoa izango da izateko aukera guztiak zabaltzea, erreferente asko eta askotarikoak ematea. Jakin dezatela, adibidez, neska izan ahal dela eta baloian jolastea gustuko izatea, edo prakak janzteia, edo ile motza eramatea... Mutil izan ahal dela eta printzesak gustatzea, edo azkazalak margotzea, edo diadema eramatea. Ez dagoela neska izateko eta mutila izateko modu bat. Mutil bakoitza bere erara dela mutil, eta neska bakoitza bere erara dela neska. Jakin dezatela neska gehienek bulba dutela eta mutil gehienek zakila; eta badirela ere zakila duten neskak eta bulba duten mutilak ere. Badirela, halaber, zakil edo bulba baten antzik ez duten genitalak dituzten haurrak, edo bien antza dutenak; baita genitalik ez dutenak ere. Ez mutil ez neska sentitzen denik ere badela.⁶

Bidelagun izateak zera esan nahi du: beraien bidea egin ahal dezaten baldintzak jartzea, oztopoak kenduz, baliabideak emanaz eta aukerak zabalduz. Nondik joan behar duten esan gabe (norberak bakarrik jakin dezakeelako). Bere ondoan bidea eginik, justu pauso bat atzetik, eskua luzatuta eta besarkada beti prest. Balaztatu gabe eta bultza egin gabe. Bide posible guztien artean beren bidea eta beren erritmoa aukeratu ahal izateko askatasuna oparituz. Haien prozesuak errespetatuz laguntzeak ez du esan nahi *ez egitea*; izan ere, bide guztietara iritsi ahal izateko, asko eta oso modu aktiboan egin egin beharko baitugu.

Neska-mutil horien bizitzetan berebiziko garrantzia du norberaren gorputzaren bizipenak eta, bereziki, genitalenak. Beren genitalen bizipen oso txarra duten haurrak ezagutzen ditugu; horrek zerikusia izan dezake, ziur aski, beren genitalen ondorioz beraien nortasuna ukatzearekin. Haurtzarotik esan baitzaie hori dela oztopo nagusia: "Ezin zara neska izan zakila duzulako". Norbait daukana edukitzeagatik ezin bada izan, litekeena da daukana eduki nahi ez izatea, benetan dena izan ahal izateko.

Baina orain arte ezagutzen ez genuen errealitate berri bat ikusten hasi gara: txiki-txikitatik beren nortasuna onartu zaien haurrak, beren identitatearekin genitalak kontrajarri ez zaizkienak, eta, gainera, "zakila duten neskak eta bulba duten mutilak" daudela jakin ahal izan dutenak. Beraien kasuan, beraien genitalak lasaitasun handiagoz bizitzen ari direla ikusten ari gara; kasu batzuetan, baita erabateko onarpenarekin ere. Izan ere, badira haien biluztasuna lagunekin partekatzen dutenak, dutxetan, igerilekuan, hondartzan... Guzti honekin lotuta, badirudi funtsezkoa izango dela gurasoek haien seme-alabei transmititzea beren gorputza ederra dela eta norberaren gorputza sentitzea, zaintzea, maitatzea, onartzea eta gozatzea zein garrantzitsua den.

Hauek dira haurtzaroko transexualitateari buruz dakizkigun gauzetako batzuk. Oraindik ezagutzeko daukaguna askoz gehiago dela jakin arren, haurren transexualitatearen ulermenari eta laguntzeari dagokionez, garai berri batean gaudela esan dezakegu. Gure begirada aldatzeko gai garenez, adierazitako sexu-identitatea ukatzetik hura onartu eta zaintzera igarotzen ari gara; bazterkeriatik inklusiora; sufrimendutik ongizatera; tristeziatik poztasunera...

⁶ Sexu-aniztasunari balioa emango dion haur-hezkuntza egin ahal izateko, ezinbestekoak izango dira kalitatezko baliabideak; adibidez, "Neskak eta mutilak" (A. Mayor eta S. Monteagudo, Ed. Litera, 2016) liburua edo izen bereko oinarritzako sexu-hezkuntzako proiektua: www.neskaketamutilak.eus

Espero dezagun gure gizarteak neska-mutil hauek benetan direnak izan ahal izango duten etorkizun horretarantz abiatzen jarraitzea. Gure esku dagoen guztia egingo dugu horrela izan dadin. Eta errealitate hau ukatzen duten diskurtsoek aurka egiten badute, gure armarik onenak ezagutza eta maitasuna izan daitezela.